



Efoma. - Batikano'fik.

Aita Santua ta Kistar Ikastia.
Efoma'ko Kistar Ikasti txapelketan «imperatore»tza irabazi dabena Réfice Edorta mutiko azkafa izan da. Réfice eresleri ospetsuaren lobe. Saria irabazi daben neska mut'ko gustiak euren zuzendariakaz Aita Santua'gana eldu dira bere eskutik agiri ta sariak artzeko. Aita Santua'k itzaldi bat zuzendu dautse Kistar-Ikastiko sariak dauken gañantzia azalduaz. Itz oñeikaz amaitu dau. «Kistar-Ikastia bizi egin bear da ez bakarik esagutu ta yakin, bizi be bai, bizitza gustiak bere arauz eralduta.»

Yon Bosko Deunaren Irudia Batikano'n.

Batikano'ko Kepa Deunaren Eleizan Urtafiña 30'n onetsi dabe Bosko Deunaren aintzaz Gopat irasleen artean ipini daben irudi edera. Bere babespean mutiko bi dituala agertzen da. Domeka Savio, deun ospez il zan Bosko'ren ikasle zintsoa, eta Amerika'n bere mixiolarik oneratu eben indio bat. Irudiak 5 metro garai ditu eta 65 tonelada. Pacelli kardenalak onetsi eban.

Yon Bosko Deunaren irudia Gopat irasleen 33'na da Batikano'ko eleizan, eta oin beste seirentzat bakarik tokiak utsik agertzen dira. Eurotatik lau, zeintsuntzat izango d ran izentauta dagoz: Lucia Filippini Deuna, lekaime irakasleen iraslea; Marillac Luisa Deuna Maitasun alabaena; Juana Thourret Deuna, Maitasun Aiztena eta S. Micaela del Sacramento «Siervas del Sacramento» deritxon Gopatzena.

Sorka'deko katolikoa.

Taupponi kardenal bafiari Efoma' tik biurtu danean izugafizko afera egin dautse Sorkaldeko katolikotafak. Baita egunokaz Arida agurgari Maronitafen Antioxia'ko Patriarka bafiak, bere arazo gurenak artu dituan egunean egin diran yayak yakingafiak dira. Milaka libanotafak afera egin dautsoe, eta euren artean izan dira, maomar, yudar eta drusoen ordelariak. Bertan izan dira isfaeldafen buru egiten dabena, alderdi abertzalearen aldunak, gobernuko lendakaria eta Pantzetar gudalburuaren ordelaria beste gizon ospetsu askogaz.

Patriarka bafiak itzaldi bat egin eutsen bere eskar ona gustie agertzeko eta adiratzan emon eutsen, sendiaren deuntasuna, eta gizon eta erien zoriona dakafen kistar Legea zintso-tasunik andienaz zaindu bear dala. Aita Santua'ri betiko menpetasuna agertuaz amaitu eban.

Mexiko'ko Gotzafien eskaria.

Mexiko'ko Gotzafien, Cárdenas Erkal-Lendakari'ri eskari bat zuzendu dautsoe, Eleizaren eskubideen kalteko legeak kentzeko. Agiri onetan saspiki eskari egiten dautsoez 1.º 1914'na ezkerotik Eleiza'ri kendutako eleizak bafiro biurtzeko, oin zabalik dagozan eleizak gitxi dira ba, Mexiko'n bizi diran 16 miloi katolikorentzat. 2'n. Agintariak eleiza bafiak egiteko baipena eskatzen yakonean emon dayela bear izana agertzen ba'yake. 3'n. Abadeak uritzen dituen Latefietako legeak ezereztuteko alegin gustiak egin daitezala. 4'n. Abade-ikastetxeak, konstituzioan aurka itxi eragin ebezan legeak kentzeko lan egin daitela. 5'n. Eleiz-etxeak bafiro biurtzeko, abadeak bizi al izan daitazan. 6'n. Agintariak irakasleai, erlejiño aurkako irakatsiak emotea galerazo dayoela. 7'n. Agintari menpekoi, galerazo dayoela, zifñeste-aurka zabalkundea egitea, «radio», izpafingi bidez eta abar.

Efazoiz beteriko eskaria da, baña, Cárdenas'ek gofoto askotxo agertu dau aintzat artzeko. Oraintsu Ruiz Flores Mexiko'ko Gotzainburu agur-

gafiak esan dabenez, lotsagafia da Mexiko'n egiten dabena. 300 abadeak baño ez dabe lan egiten, legez, latefi gustian, eta 2 700 dagoz al dan eraz euren eginbeafa betetan dabena, bizitza galtzeko afiskuaz Eleiza geyenak itxia ikastolak ostuta, efietxe katolikotafak bardin, izpafingi katolikokoak galerazota. Benetan negargafia!...

Euskotar yosulaun yakifun bafen erlotza.

Egunokaz il da Beljika'n, iru urte oneitan erbestuta egon dan etxean, Beraza'tar Balasi aba yosulaun yakintsua. 1862'n Begoña'n yayo zan, eta emeretz urtedun 1881'n Yosu'ren Lagundian sartu. Irakasle bikain eta teoloji-gayetan idazle sakona izan da. Teoloji gayetzaz lau idazti sakon eta ugari «Cursus Theologicus Oniensis» izenaz argitaldu zituan. Gayak ondo eraldu, sakonkiro adiraldu eta argi azaltzen gitxik irabaziko dautsoe. Irakasletzarako yayo zan, ia ogetamar urtean, Yosulaunen teoloji irakasle izateak, agertzen dabenez. Adimen zoli ta biotz aundikoa izan da, eta oin berak ain sakonkiro ta argi azaldu zituan egiak lauso barik eta betiko ikasteko donokiratu dala esan geinke.

Katolikotar idazti-zaleak Ipar-Amerika'n.

Washington'en bildu dra 55 idaztigitiko zuzendariak Minnessota eta Dokota'n, «National Catholic Library Association», Bazkunaren talde bat eralduteko. Batzar onetarako Sor Cecilia lekaime ospetsu ta lateri-Batzordekoaren eskariz dei egin yake. Yau-pa entzun ondoren egin dan batzafean San Pablo'ko Gongotzain Murray agurgafiak itz-egin eban asmo onen alde, aziera onaren zale diran gustiak lagundu bear dautsoela esanaz. Eta idazti zale diranak agertzen daben gafaz ekin bear yakola esan ez bakarik idazti onak bialtzen, euren ingoskietan eskutatuta lez aurkitzen diran edertasunen yabe egiteko, aleginduz be bai. Ederto esana! Safiegitan gertatzen da ba, idaztigitiek ipini ta... a gelditzen dira lagunik onentzat, autsa dabela...

Alemania'ko Gotzafiak «zifñesgekeri-bafiaren» aurka.

Urtafiña 25'n Alemania'ko eleiza katoliko gustietan irakufi zan, Gotzafiak argitaldu daben Idazki bat. Idazki onetan eleiztar gustie debekatzen yake, «naziztafen» zifñesgekeri alde egiten daben izpafingi, aldizkingi ta idazti gustiak irakurtea, eta baita «galbidez beteriko ezikutza» zelayetara yoatea, bertan kistartasunaren aurkako gauza asko irakasten diralako. Gotzafiak diñoenez «alemandar eria-lateri andien artean sartu zan, kistartasun-bidez zifñesgeri ilunpetik urten zanean». Eta ondiño Kerrl ministroa egunokaz esaten asartu da, eurek erlejiñoari eragozpenak ipinten dautsoezala esatea guzufa dala. Au baño guzur andiagorik ez da ezez asmatzen.

—Spieker yosulaun izlari ospetsua amabost ilabeterako espetzeaz zigortu dabe, latefi alderdi ta lege galgafien aurka itzaldi bat egin dabelako. Yosulaun au gudaldian galendu zalako ta, biguntxoago zigortzea erabagi dabela, esan dabe epaikariak. Kistar irakatsiak azaltzeafen zigortu ta yasarpenik ez dagola esateko arpegiko nafua lodi samafa bear dal...

Dakar'ko Eleizearen onespén ospetsua.

Apirka aldean katolikotasunak indar andia artu dau, eta oneratzan diranak gero ta ugariago dira. Dakar'en berebiziko eleiza edefa iragi dabe, eta berrou onesteko andikiro yayak gertau ditue. Verdier kardenala Aita Santua-ren Ordeleri yai oneitan izango da eta

Naparroa

Iruñetik.

«Igantetik igandera». Aldun edo diputadoen autatzea dela bide izenbat mintzo den!

Nere irizpideko, oraiko aldi untan eta autatzeari buruz; asmo edo xede beafezkoena bear litzeke, berexi; langile beartsuen alderako gizon obereak; ots, langileak maite dituztenak.

Aita Sainduak dio: oraiko aldian, Efelijoari egin dion kalte andiena, langile batsuen galtzea, edo gure sinestetik eken ufuntzea.

Ori egia denez geroz; ¿Nor obendun? Ebangelioko egia asko bizkaferra emon ditugulakoz.

Katoliko aberatsak eta nagusi geienak ¿zer gisaz jokatu gara gure menpekoen aldera?

Gogoratu dezagun, Ebangelioak diona: «24 Hargatik bada, zorigaitz zuentzat, aberatsak, zeren zuen gozoa oraidanik duzuen».

25 zorigaitz zuentzat, aseak zarentenak, zeren gose izanen baituzue».

Bakotza bere baitaratu, obendun ote den ikusteko.

Eta ez bakarik aberatsak eta nagusiak; bai ta espezak, fraileak eta.

Beartsuak, aberatsak baño adiskidego eta maiteago izan ote dituzte? ¿Langileak, nagusiak baño maiteago? mutilak, nagusi-etxeako-andreak baño?

Aspaldidanik uste untan nago; lanlangile geienak etsai baldin baditugu, gu, obendun garela.

Ez ditugu lagundu; ez ditugu maitatu, Ebangelioak erakasten digun bezala.

Aberatsekin naiago; beartsuekin eta langilen etxeetan baño maizago, aberatsen etxetan.

Apezak eta langileak elkafenganik berexi direlako, nik uste; Aita Sainduak eman diola «Acción católica» delakoari, bide beraxi bat, apezek besteek lan egin dezaten, sineste gabek biltzeko eta argitzeko.

Nola nai den dela; oraiko autatze untan, leenengo bide berberetik dabilza eta...

Oraiko aldian, katoliko baten nabarmen ageriena, bear litzeke, langilen alderako egiatzko katoliko agertzea.

Gizon zintzo baten kristautasuna, nola langileak laguntzen dituen, nola maite dituen, ori bear litzeke ezagupide bereziena.

Irujo jauna adiskide dut eta badaikit aren befi.

Befiki; eri-gaxo bati gaxotegian leku emateko, beste zerbeiten ondoti, unela azkentzen zuen idazki eder bat. «No es cristiana una sociedad que no arbitra medios de atender al desvalido enfermo, a

egunokaz «Chellah» itxasontzi edefean Aita Santua'ren ikufin edefa dabela eldu zan. Laguntzat Gotzain bi ta befogei abadez gañera, beragaz yon dira Parisgo yaurleri, eta «zeri-ara-zoetako ministroen ordelaria beste batzun artean. 150 bidezti eurakaz eldu ziran, eta izugafizko afera apirkatafak geratu eutsen. Ilaren 2'n Eleiza bafiaren onespén andikiro egin zan.

M'iar G.

Bizkaya

Mañari.

«Eliakixunok». Igandez Otoitz - Bialguntza'kuak ileroko eleizkixuna euki gendun. Baña Joseba Deuna'ren saspiki igandien oneraspena be, egun ofetan asi zan.

Berbaldijak.

Igande goxian, geure batzokijan berbaldi aberkoyak euki genduzan. Izlarijak, Untzeta'tar Sorne, R. Agife'tar Julen eta Galastegi'tar Alexander izan ziran. Izlari oneik, Jel-Al-

cuya puerta llama la muerte, a la que debe recibirse con la solemidad de su transcendencia máxima».

Unela mintzo den gizona, ez daitete efan, ez dela efelijoaren aldekoa.

Zergatik ote den, ez dakit; baño, oraiko aldian bloque delakoak, iduritzen zait, ez dardela ufengo aldian bezain bere.

«Argia»'ko befiezale «Mendi-xuri» jaunak «La Voz»etik, zerbeit efan bide zuen (ni orduan gaxo nindagolakoz, ez nuen deusik irakurtu) «bloque» delakoek Auritzen egin zuten bilkuraz.

Eta efan zuena gaitzitu zitzaion «Diario»ek Auritzen daukan befiezaleari eta Jainkoak daki, jaun unek efan zitien gordinkeriak.

Baño «Mendi-xuri» jauna zutitu da, eta ez da ixildu: bereak eta esto beltzarenak efan ditio larunbateko «La Voz»etik; argi eta garbi adiaraziz, eusko abertzaletasuna bat dela emen, Gipuzkoan, Bizkayan eta berdin ere Benabafeko Luzaide eta Arnegin; ortarako, sski dugu oroitzea nola Luzaide-ko Politene-ko etxeako berberak direla Arnegi-ko politenekoak. Nola nai den Auriz, bilkura afen ondorio gisaz Auriztafak ez daude bakean.

«Mendi-xuri» jauna; barkatu, baño uzkizu bere uliekin; guk, obe dugu, gero ta katoliko zintzoago izan; gero ta gure efiaren nabarmenaz azkafago agertu eta beti euskaraz.

Baño: Izotzilak utzi digun aroaz ¿zer efan? Afigafi dena: zuzitak loretzen esak eta landare belardunak efo guti barnerat eta geiegi anditu aierat; eztakit: elufa eldu ezpada bereala!

«San Cristobal» gaztelutik Gijon-a eraman dituzte 209 giltzpetu; baño zear-bidez Etxafi Aranaz barna, orai gelditu direnak 250 omen dire.

Gofien aslun-gaiak ere agertu dire, baño ekin batio doaien «Acción nacionalista» delako gaia, orañik ez da sortu.

Azken igandea, delakoz, efietan bilkura ainiz, alderdi guztietakoak baño nagusiago «bloque»koak.

Igandean fuboleko partida «Osasuna» ta «Betis» Sevilla'koa. Emengoek sei golez irabazi zuten, bestek batere ez.

Azken merkatu'n 440 txefi eta 45 aretze saldu ziren, sos bat merkeago.

Urbilen aldi artio, Jainkoak ala nai duelarik.

LAÑERO

derdijak auteskunde onetan agertu dauzan asmuak ederto baten azaldu euskubezan. Aren jesa ta aren gatz ofetan...! Jentlari oso-osuan atsegin ixan yakozan; eta efime txalotua ixan ziran.

Agurtu.

Gaur astartez agurtu doguz emen «Ogoño» euzkel idazle argija ta Enbeto'tar Balendin olezkari jayua. Eurokaz «Jaungoikua eta Lagi-Zafa» tzaz berbalditxu bat oso atsegiñez egin dogu. Aberkide oneik, garizumako egun baten edo. (J. L.) emeko batzokijan berbaldijak egingo dabez.

Juan-Etoñijak.

—Afieta'ra juan zan egun bat edo bi igaroten B:fenetxea'tar Polentzi abade jauna.

—Astelenez egon zan emen Dolara'tar Koldobika abade jauna.

Palta diranak.

Egunokaz, San Blas inguruan beti lez, ijituak ploka agertu dira. Ta, euretariako andra batzuk, au afapau ta ori afapau, gauzarik asko ostu da -be. Gure alboko Pantxika'ri be oluak ostu dautzoez; oluok, gonspietan eruan dabezala edo. Bai ba, ofeik, ofetarako soñeko egokijak euki beta... gona magaltsuak...

Gexorik.

Gexorik txarto aurkitzen da, Lafea'tar Ixidore andera. Baña elgofijagaz ta abar, umerik asko be egunokaz, makalik aurkitzen dira. Danok arin osatuko al dira.

MAÑARIKO

Nabarniz.

«Eskontza». Igaro dan eguenian Begoña'n ezkondu ziran gure efitar ta abertzale begiko doguzan Malaxetxabafia'tar Patxi eta Bengoetxea'tar Terese neskatil Iraña. Neure zorionik berue-nak demotzedaz ba, zeuen bizimodu bafian.

Mitiña.

Evp... nekazari gustiok biar igandez mesa nagosi osterako danok etofi mitiñera, entzun gogorik onenagaz. Izlariak onek dira: Gofioño'tar Karmelo, Urkiaga'tar Estepan (Lauaxeta) eta Alberdi'tar Miren Begoña anderañua. ¡Abertzaliak! itzaldi ofek entzutera danok eldu biar gara, ez geu bakarik abertzale ezitiran gustiak egia entzutera etofi. Jaungoiko alde eta Euskalefiaren alde nok egin dau lanik geyen emen - eta Madrid'en? Egintzak biar doguz emen egintzak. Badakigu euzkotafen zoriona mundik loftuko dogun ta gure efioeren egizko zoriona jadetsi gura badogu, guzufa ta nestea alde batera itxi ta izan dela zeure botoa efioeren aldeztale zintzoentzat.

¿Erlak ontsat artuko ete dau?

¿Zer uste dozu esatera noyala? tamal aundiagaz benetan diñot zugatz edo arbola eder eta Jaungoikuak daki noizkua atan be dan gure plaza edefan agertzen dana, botatia gure udel gixon gestorok artu dabe erabagi au, zer egin andirik ez dabe gure gizonok; tamal aundia da beintzat, zeinda «Gernikako arbola lez» Nabarniz'ko arbola botatie! nunguak ete dira komunismua berton sartun da lenen dana ta geyago esan lei.

ILUNARPE